

Egunon. Ongi etorriak izan zaitezela, eta eskerrik asko prentsaurreko deialdi honetara etortzeagatik. Kontuz elkartetik, pasa den Maiatzaren 24-ko hauteskunde emaitzen inguruko irakurketa egin nahiko genizueke.

1. **Lehenik eta behin**, Kontuz elkartetik herritarrak zoriondu nahi ditugu, Maiatzaren 24-ko hauteskundeetan eginiko erakustaldi demokratikoagatik eta, baita ere, hauteskunderen emaitzengatik.

Benetan pozik gaude, geure neurri apalean, Nafarroan aldaketa eragiteko egin dugun ekarpenarengatik. Gure ikerketa, salaketa, kontzientzia hartzea eta herritarren mobilizazioa sustatzeagatik.

Gure iritziz, Nafarroako herritarrak zoriondu behar ditugu, heldutasuna adierazi eta Nahikoa da! esateko gaitasuna erakutsi zutelako, azken urteotan egin izan diren barrabaskerien aurrean, eta izua hedatzeko kanpaina egin izan duten horien aurrean. Ez dator inongo kaosik. Kaosetik ihesi goaz.

2. **Bigarrenez**, boto-kutxetatik jaiotako aldaketa gogoa gestionatu behar dutenei erantzunkizuna eskatu nahi diegu. Botoen konfidantza jaso duten heinean, beraien esku dago herritarren itxaropenari hutsik ez egitea. Hori da Geroa Baik, EH Bilduk, Podemosek eta Izquierda-Ezkerrak begi-aurrean duten erronka eta erantzunkizun historikoa.

Ardura hori gestionatzea ez da erraza izanen. Baina, gure aldetik, bazterkeriarik gabe, lauren arteko adostasuna lortzeak duen zailtasuna aintzat hartzea baino, lau alderdi hauek duten aukera historikoa nabarmendu nahi dugu. Herritarroi, beste era batean gestionatzea posible dela erakutsi behar digute. Erronka historikoa da hori.

3. **Hirugarrenez**, gogoratu eta azpimarratu nahi dugu, Nafarroan aldaketa politikoa ahalbidetu duen ardatz nagusietako bat, ustelkeriaren salaketa izan dela. Herritarrontzat batere onuragarria eta demokratikoa ez den jardun politikoa deitoratu izana. Jardun horiek dira UPN eta PSN-ren errejimenaren gestioa goitik behera zipriztindu dutenak. Kontuz-etik uste dugu, ezin dela aztarna edo orban horretatik aske izanen den etorkizun politiko bat eraiki, aurrez funtsezko bi lan betetzen ez badira: batetik, jardun ustel horiek ahalbidetu dituzten administrazioen barne mekanismoak sakonean ezagutu, salatu eta jakinarazi. Bestetik, jokabide horiek errepika ez daitezen, beharrezkoak diren kontrol mekanismo guztiak diseinatu.

Bi helburu horiek lortzeko, erakunde nagusietan gobernatzeko ardura izanen dutenei zera eskatu nahi die Kontuzek:

- A. Ez da nahikoa ustezko jardun ustelak, eroskeria eta lagunak saritzeko azpijokoen kontra agertzearekin. Hori guztiak egiten dute baina gero, nola gelditzen dira herritarrak? Ze aurpegirekin?

Ezinbestekoa da Errejimenaren sakoneko ikuskaritza bat egitea, eta horretarako beharrezkoak diren tresnak sortzea, azken hariraino, kosta ahala kosta.

- B. Nafarroako parlamentuko saioen hasierarekin batera, hartutako konpromisoa bete eta Nafarroako Kutxan gertaturikoari buruzko ikerketa batzordea berrabiarazi.
  - C. Aldaketaren erantzuleak diren indar politikoek konpromisoa har dezatela, oraindanik, erakundeetatik ikuskaritza hori irmoki babesteko: horretarako organo bereziak sortuz, edo lan horretan diharduten erakunde independenteei beharrezkoa den babes instituzionala emanaz. Ereiten ari diren fruitua izan dezaten.
4. Azkenik, Kontuzek agintari berriei eskaintza egin nahi die. Bere garaian herritarrekin hartu genuen konpromisoari jarraiki, aipatutako lanetan laguntzeko prest gaudela, geure esperientzia, lan metodoa, eta gure baliabide zein konpromiso pertsonala eskainiz.

Ez da vendetta edo mendeku garaia! Baina iritsi da bai, inpunitate harresiak eraisteko ordua!!! Ez daitezenez berriz ere errepikatu Urralburu, Otano, Sanz eta Barcina auziak, sekula ez!